Ordain-agiria behar bezala aurkeztu ondorengo 15 eguneko epearen barruan, Kultura eta Turismo Sailak helaraziko dio laguntza-jasotzaileari horren zenbatekoa.

VII.– AZKENEKO ERABAKIAK.

*15. Atala.*– Diruz lagunduriko liburuetako bakoitzean Kultura eta Turismo Sailetik jasotako laguntzaren aipamena egin beharko da.

*16. Atala.*– 1987.eko azaroaren 30ean argitara gabe gera daitezkeen liburuei adjudikazio-garaian agindutako diru-laguntzak, liburuok kaleratutakoan ordaindu ahal izango dira edo, Kultura eta Turismo Sailak ondo baleritzo, epe barruan argitara emana izanik, eskabidea egiterakoan ez aurkeztutako liburuen artean banatzeko.

*17. Atala.*– Kultura eta Turismo Sailaren iritziz, laguntza-jasotzaileak erabilgarri diren araupideetakoren bat bete ez izana gertatuz gero, hartutako diruak Euskal Herriko Diruzaingo Nagusiari itzuli beharra aldarrikatuko da, bidezko izan daitezen gainontzeko ekintzen kaltetan gabe. Dagozkien legezko ondoriotarako, itzulpen horiek herri-alorreko diru eskuraketatzat joko dira.

*18. Atala.*– Kultura eta Turismo Sailaren ebazpenek administrazio-bidea amaierazi egiten dute eta horien aurka aurrez birjarpen-errekurtsoa tartejarri eta gero jurisdikzio kontentzioso-administratiboaren bidea bakarrik geratuko da.

*19. Atala.*– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1987.eko Irailak 10.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

*HABE*

**1997**

HABEren Lehendakariaren 1987.eko irailaren 3ko EBAZPENA, Zuzendaritza-Batzordean hutsik dagoen Euskaltegiei atxiki gabeko HABEko langileen ordezkaritza betetzeko hauteskundeetara deialdia eginez.

HABEren Lehendakariaren 1985.eko otsailaren 8ko Ebazpenaren seigarren artikuluaren arabera, HABEren Zuzendaritza-Batzordeko kidetzan hiru urteak burutu baino lehen hutsunerik gertatuko balitz, 1985.eko hauteskundeetan hurrengo gelditu zenak bete behar zukeen. Aipatu hauteskundeetan beste hautagairik aurkeztu ez zenez, HABEren hiru Zerbitzuetako plantilako diren eta Euskaltegi bati atxiki gabeko lankideen ordezkaria aukeratzeko prozesuari hasera ematea dagokio.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT:

*Lehenengoa.*– 1987.eko uztailaren 24eko Ebazpenez adierazten den HABEren Zuzendaritza-Batzordeko

Una vez presentadas las facturas, y en el plazo de 15 dias, el Departamento de Cultura y Turismo abonará a los perceptores los importes correspondientes a las ayudas adjudicadas.

VII.– DISPOSICIONES FINALES.

*Artículo 15.*– Todo libro subvencionado por el Departamento de Cultura y Turismo hará mención expresa de tal situación en todos y cada uno de los ejemplares.

*Artículo 16.*– Todas las subvenciones asignadas a los libros que el 30 de noviembre no hayan sido publicados, podrán abonarse con posterioridad a su edición o, si el Departamento de Cultura y Turismo así lo decidiera, serán utilizadas para distribuirse entre aquellos libros que habiendo sido publicados dentro de plazo, no hayan sido tenidos en cuenta en el momento de realizar la solicitud.

*Artículo 17.*– En el supuesto de que, a juicio de este Departamento, el beneficiario de la subvención incumpliera cualquiera de las normas aplicables, se declarará la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe de la ayuda concedida, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

*Artículo 18.*– Las resoluciones del Departamento de Cultura y Turismo agotan la vía administrativa, y contra las mismas sólo procederá la jurisdicción contencioso-administrativa, previo recurso de reposición.

*Artículo 19.*– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el B.O.P.V...

Vitoria-Gasteiz, 10 de Septiembre de 1987.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

*HABE*

**1997**

RESOLUCION del Presidente de HABE, de 3 de Septiembre de 1987, por la que se convocan elecciones para el nombramiento del representante del personal de plantilla de HABE y que no esté adscrito a Euskaltegis, como miembro del Patronato Rector del Ente.

De conformidad con el artículo sexto de la Resolución de 8 de Febrero de 1985 del Presidente de HABE, la vacante ocasionada por el cese de un miembro, con anterioridad al cumplimiento de los tres años de duración del cargo, como miembro del Patronato Rector, obliga a la sustitución del cesante por el siguiente en número de votos obtenidos en las elecciones de 1985. No habiéndose presentado ningún otro candidato en las citadas elecciones, queda abierto el proceso electivo de un representante de los trabajadores de plantilla de HABE, pertenecientes a los tres Servicios del Ente y que no estén adscritos a Euskaltegis.

En su virtud,

RESUELVO:

*Primero.*– Las personas que deseen presentarse como candidatos a miembro del Patronato Rector para ocupar

hutsunerako hautagai izan nahi dezatenek urriaren 3a baino lehen eman beharko diote berorren berri idatzia HABEren Zuzendari Orokorrari.

HABEren Zuzendari Orokorrak, urriaren 10a baino lehen argitara emango du hautagaien zerrenda, Zerbitzuetako iragarki tauletan jarriz.

Hautagaien zerrendaren aurkako murtziloak aurkeztu ahal izango dituzte hautesleek, dagokion Zerbitzuburuari sinatutako idatzia bidaliz. Hauek Zuzendari Orokorrari helaraziko dizkiote idatziok, urriaren 15a baino lehen, behin-betiko zerrenda osa dezan.

*Bigarrena.*– 1987.eko urriaren 16an egingo dira hauteskundeak, HABEren egoitza nagusian, horretarako Mahai bat jarriko delarik.

Lehendakari batek eta bi Bokalek osatuko dute Mahaia, hiru Zerbitzuetako plantilako hautagai ez diren zaharrenek osatu ere. Hauetako zaharrena izango da Lehendakari eta gazteena arituko Idazkaritzan.

*Hirugarrena.*– Botazioan, hautesle bakoitzak hautatu nahi duen hautagaiaren izen-abizenak idatziko ditu orri zuri batean, zorro zurian sartu ondoren Mahaiko Lehendakariari emango diolarik, honek kutxan sar dezan.

Hautatze-Kolegioa urriaren 16ko 13etan itxiko da, emandako botuak zenbatu ondoren dagokion akta osatuko delarik, Mahaiko hiruek sinatuz.

Aipatu akta osatuz gero, Mahaiko Lehendakariak HABEren Zuzendari Orokorrari eramango dio, honek Erakundearen Lehendakariari heleraz diezaion.

*Laugarrena.*– Astebeteko epean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da boturik gehien lortu duenaren izena. Botuetan hainbana eginez gero, aintzinatasunik handiena duena izango da aukeratua, eta horretan ere berdintasuna emanez gero, adinez zaharrena.

*Boskarrena.*– Hautatze-Mahaiak hartutako erabakiaren aurka HABEren Lehendakariarengana jo daiteke, argitaratzen denetik hamabost eguneko epean, honen Ebazpena izango delarik bide administratiboaren amaia.

*Seigarrena.*– Ebazpen honen arabera aurkeztutako HABEren Zuzendaritza-Batzordeko karguak hiru urteko iraupena izango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik.

*Zazpigarrena.*– Erabaki honen aurka Birjarpen--Errekurtsoa egin ahal izango dute doakienek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratze-biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

HABEko plantilan inskribiturik dauden eta Erakundearen Euskaltegi bati atxiki gabeko langile guztiak izan daitezke deialdi honetarako hautesle eta hautagai.

Gasteizen, 1987.eko irailaren 3an.

HABEren Lehendakariak,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

la vacante que describe el artículo 9-c de la Resolución de 24 de Julio de 1987, deberán comunicarlo por escrito al Director General del Ente con anterioridad al día 3 de Octubre próximo.

El Director General de HABE hará pública la lista de candidatos mediante inserciones en tablones de anuncios de los Servicios, con anterioridad al día 10 de Octubre.

Los electores podrán presentar reclamaciones contra la lista de candidatos a través de escritos firmados y remitidos a los Jefes de cada Servicio, quienes las harán llegar al Director General a efectos de que establezca la lista definitiva antes del día 15 de Octubre.

*Segundo.*– Las elecciones se celebrarán el día 16 de Octubre próximo en la sede central de HABE, constituyéndose una Mesa Electoral compuesta de un Presidente y dos Vocales, que se designarán entre los tres miembros de más edad de la plantilla de los tres Servicios. Será Presidente el miembro de más edad de los tres componentes de la Mesa, y Secretario lo será el de menos de edad de entre ellos.

Ninguno de los miembros de la Mesa podrá ser candidato.

*Tercero.*– Para la votación, cada elector escribirá en un papel en blanco el nombre y apellidos del candidato que desee votar, introduciéndolo en un sobre blanco y lo entregará al Presidente de la Mesa, quien lo introducirá en una urna.

El Colegio Electoral se cerrará a las 13 horas del día 16 de Octubre, procediéndose al escrutinio de los votos, y se confeccionará el Acta correspondiente firmada por los tres miembros de la Mesa.

Una vez confeccionada el Acta definitiva, el Presidente de la Mesa la entregará al Director General de HABE para que se la haga llegar al Presidente del Ente.

*Cuarto.*– En el plazo de una semana se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco el nombre del que haya obtenido mayor número de votos. En caso de empate, la designación recaerá en el candidato de más antigüedad, y en el caso de igual antigüedad en el de más edad.

*Quinto.*– La Resolución adoptada por la Mesa Electoral podrá ser recurrida ante el Presidente de HABE en el plazo de quince días contados desde su publicación, agotando la vía administrativa.

*Sexto.*– La validez del cargo de ser miembro en el Patronato Rector de HABE, elegido según lo establecido en esta Resolución, estará en vigor por un período de tres años a partir de la fecha de publicación de la designación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Séptimo.*– Contra la presente Resolución puede interponerse Recurso de Reposición en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICION ADICIONAL

Podrán ser electores y candidatos para la presente convocatoria, todos aquellos trabajadores de HABE que se hallen inscritos en plantilla, en calidad de fijos y que no estén adscritos a los Euskaltegis Públicos del Ente.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de Septiembre de 1987.

El Presidente de HABE,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.